

Mundua den etxea

**Gabriela Damián
Miravetek**

Lurralde Elkartuak
fabulatzen ditu

Zirriborroak eta gero
Arabako bilduma #6



Zirriborroak eta gero

ZIRRIBORROAK ETA GERO

Ekoizlea

Azala Kreatzio Espazioa

Proiektuaren ideia eta sorkuntza

Arantxa Mendiharar, Ixiar Rozas, Idoia Zabaleta

Aholkulari zientifikoa

Unai Pascual

Koordinazioa

Arrate Hidalgo

Bildumaren diseinua

Ibon Sáenz de Olazagoitia

Komunikazioa

Teklak. Komunikazio eta Audientzien Estudioa

Webgunea

La Debacle

ARABAKO BILDUMA #6

Idazlea

Gabriela Damián Miravete

Alternatiba

Lurralde Elkartuak, Chiapas-Araba

Ilustratzailea

Natalia Albeniz

Itzultzailea

Amaia Apalauza

Zuzentzailea

Danele Sarriugarte

Grabazio arduraduna

Alberto de la Hoz

Banatzailea

NOIZ

Inprimaketa

Gráficas Dosbi

Lehen edizioa

2022ko apirila, Lasierra (Araba)

Erakunde laguntzaile nagusia

Eusko Jaurlaritzako Kultura eta Hizkuntza Politika Saila

Entitate laguntzaileak

Diario de Noticias de Álava

Hala Bedi Irratia

Zas Espazioa

Lege-gordailua: LG G 00342-2022

Lan hau Creative Commons-eko Aitorpen-EzKomertziala-PartekatuBerdin Nazioarteko 4.0 lizentziaren pean dago (CC BY-NC-SA 4.0).



Mundua den etxea

Kontakizunak eta fabulak
mundu posibleei buruz

zirriborroaketagero.net



Mundua den etxea

Gabriela Damián Miravete

Yunuen ostatutik irten eta zerura begira jarri zen, euri-langarrari ongiatorri egiteko. Egun garbia zen, argi zilarkaraz distiratua. Ostadar apurtu baten koloreek diz-diz egiten zuten hiriko sabaien gainetik. Hotz pixka bat sentitu zuen, baina pentsatu zuen ohitzea izango zela kontua. Hura ez zen beraren haurtzaroko Txiapasko mendietako klimaz oso bestelakoa.

Oinez egin beharreko ibilbidea oso laburra iruditu zitzaion. Bazitekeen orain ibilbide guztiak laburrak iruditzea, itsas zabalean kontinente batetik bestera hilabeteak eman eta gero. Bere buruari galdetu zion ea zenbateraino harritu izango zen hegazkinez etorritako jendea, ordu gutxi batzuetan bestelako paisaia, hizkuntza, landaretza eta ohitura batzuetan murgildu ondoren. Nola arraio moldatzen ziren beren gorputza leku berrira hain azkar egokitzeko? Pentsatu zuen halako egoera batean suertatutako norbaiti galdetuko ziola, baina, lagunentz zerrenda begiratzen hasita, konturatu zen ez zeukala nori. Hegaldiak urriak ziren, eta presazko aferetarako gordetzen ziren.

Etxe komunera iritsi zelarik, ez zuen aterik jo beharrik izan: zabal-zabalik zeuden. Jende mordoak zegoen, eta erdiko patioak *tianquis* bat zirudien (gaztelaniaz, *mercadillo*, eta, euskaraz, *azoka txikia*, zaletak argitu zuenez). Eguterako aldean, adineko pertsona batzuk oso entretenituta zeuden, itxuraz, karta-sorta batekin; laiotzean,

ikasle-talde bat paperezko liburuak irakurtzen ari zen, koltxoneta bigunen eta koloretako kuxinen gainean jarrita, erakutsi nahi balute bezala zer jarrera pila har ditzakeen giza gorputz batek irakurtzean.

Yunuenek zaletaren bidez jakinarazi zion harrera-batzordeari iritsia zela, eta banku batean geratu zen, zain, ezki mardul baten itzalpean. Etxe komunaren komentu-arkitekturak antz handia zuen berak ezagutzen zuenarekin. Izan zitekeen itsasoaz beste aldeko komentu ohietako bat, ez balitz hormetan durundi egiten zuten euskarazko, frantsesezko eta gaztelaniazko doinuengatik eta hurbileko sukalde batetik zetorren gisatu-, gurin- eta porru-usainagatik. Gero, Alairen irribarrea ezagutu zuen, eskailera nagusietatik jaisten ikusi zuenean. Lurralde Elkartuetako ohiko keinu bereizgarrien bidez agurtu zuten elkar: eskuak bularrean gurutzatu, eta, gero, besarkada estu bat.

—Zer moduz bidaia? —galdetu zuen Alaik, betaurrekoak belarrien atzean atonduaz batera.

—Dagoeneko oroitzapen bat da! —erantzun zuen Yunuenek—. Zuek, zer moduz?

—Zeuk ikusi, eta esan. Oraintxe bertan, Desikaskuntzako talde bat ari da lanean. Ikusi nahi?

Yunuenek baietz esan zuen. Harrizko eskailera zaharrak igo zituzten; eskudelak aihen-belar eta lore landuz apainduta zeuden, eta zaletari galdetu nahi izan zion zer ote ziren, baina Alai oso azkar zihoan. Hormetan baziren esaldi eta marrazki ugari, han bizi zirenenak edo bizi izan zirenenak: txakur txiki baten irudia, margoz egina, edo birao sorta bat, kaligrafia zainduz hainbat hizkuntzatan idatzia. Yunuenek kristalezko igogailua igotzen ikusi zuen (*ascensor, igogailua*, azaldu zion zaletak); beren ondotik igaro, eta laugarren eta azken solairuan gelditu zen.

—Gure batzordeak gauean bilduko dira, ez lehenago; hortaz, zurea etortzen ez bada, zu eta biok bakarrik egongo gara egun guztian zehar —azaldu zion Yunuenek Alairi.

—Horixe pentsatu dut nik ere; hartara, galdera pila bat egin ahal-ko dizkizut. Sentitzen dut, baina gogaituko zaitut —esan zuen Alaik, txantxetan.

—Baita nik zu ere. Are gehiago, oraintxe hasiko naiz: toki hau mojek eman dizuete?

—Bai. Latinoamerikan eta Afrikan Adostasun Adierazpenarekin bezalaxe gertatu zen lurralde komunean ere. Serora zahar batzuk hemen bizi dira oraindik ere. Primeran pasatzen dute berek

hasitakoaren fruituak ikusiz. Oso ordena gutxi geratzen da egoitzarik ireki ez duenik.

—Batu al da beste erakunderik? —galdetu zuen Yunuenek.

—Bai, banku-erakundeak batik bat. Dena den, ez zuten askorik galdu: sukurtsal gehiegi zeuzkaten eraikin historikoetan —erantzun zuen Alaik, eszeptikoki.

—Han, jabetzak Adierazpeneko irizpideen arabera arautu zirenean, etxebizitza komunitario gisa eman behar izan zituzten eraikin kolonial asko. Erakunde erlijiosoen esku egotetik, hotel-kateen mende egotera igaro ziren: espazio arkitektoniko horiei esanahi berri bat ematea lehenetsi zen, eta, horretarako, eraikinen hasierako asmoa berreskuratzen edo hobetzen zuten proiektuak bultzatu ziren.

—Hemen da. —Alaik kontu handiz ireki zuen ate lerragarria, olatuen soinuari iragazten utziz.

Bi mila eta hogeiko urteetako pandemien ondotik, Ipar globaleko gobernuak ohartu ziren migratzaileek parte hartzen zuten sektoreak izan zirela gizarteei urte latz haietan eutsi zietenak: landa-eremua, osasun-zerbitzuak, mezularitza- eta garraio-zerbitzuak, etxeko langileak eta zaintzaileak. Eta, hala eta guztiz ere, ez zen deus egin haien bizi-baldintzak hobetzeko. Egin zen gauza bakarra zera izan zen: ekialdeko migratzaileak di-da legeztatzea. Pertsona horiek, Espainiako legeztatze-bulegoetan edo atzerritarrentzako zentro itxietan pilaturiko beste milaka bezala, gatazka armatuetatik ihesi etorriak ziren, gerrari, goseari eta indarkeriari aurre egiteko aterpe bila denak ere, baina haiek begi-urdinak eta azal-zuriak ziren, hots, *prójimo* haiei (*lákak*, lagun egiten duena, ahaidea, maia hizkuntzan; *lagun hurkoa*, euskaraz) eskua luzatu behar zitzaien.

Bi mila eta hogeita hamarreko urteak iristerako, migratzaileen egoera larria zen, Europako estatuen esku-hartze ahalmenaz gaindikoa. Latinoamerikan, migratzaileek Estatu Batuetarantzko bidaldetik bizirik ateratzea lortzen zuten; izan ere, bazekiten gobernariak ezikusiarena egiten zietela, eta, hortaz, beren kasa konpontzen zituzten aferarik garrantzitsuenak: herritarren erreskate-brigadak sortu ziren hondamendi-guneetan, desagertutako ahaideak bilatzeari ekin zioten, kriminalak identifikatu eta justiziaren esku utzi zituzten... Elkarrenganako babesaren eta maitasunaren hari sendoz ehundutako

egiturek funtzionatzen zuten, eta balia zitezkeen beste geografia batzuetan ere. Horixe erakutsi zuten Atlantikoa zeharkatu eta lan-esku merke gisa Europako familien etxeak garbitzera eta haien haur eta zaharrak zaintzera joandakoek. Klima-larrialdiaren ondorio sunsitzailleen eraginez eta herri eta auzoetako betiko ekimen txiki baina indartsuen laguntzaz, era hartako antolaketa-moduek indarra hartu zuten kontinente zaharrean ere, eta hiriguneetan ere sustraitu ziren, ordura arte ezezagun samarrak izan arren.

Proiekzio-aretoko iluntasunean, itsasoak trumoi- eta apar-ahotsez orro egiten zuten. Haren ñabardura berde-urdinek kontrastea egiten zuten hondartzako harea urrekareekin. Narratzailearen ahotsak eteten zuten olatuen ikusmirak zekarren bakea: esaldi epiko aski maiztu horietako batekin amaitu zuten nabigazioaren historiari buruzko dokumentala. Grabazioa gelditu, eta gortinak zabaldu ziren. Argia sartu zen. Aretoan zeudenek eztarria garbitu zuten, begiak igurtzi zituzten, beren eserlekuetan mugitu ziren.

—Datu batzuk emango dizkizuet —iragarri zien Laurak, gonbidatzaileak, Desikaskuntzako taldeko parte-hartzaileei—. Dokumentala ekoizpen lokal bat da, Estatuak finantzatua, 2037an filmatua. Jakingo duzuenez, ordurako, indarrean ziren erregai fosilen murrizketak. Gero eta bidaiari-itsasontzi gehiago etortzen ziren, planeta guztitik, nahiz migrazio-legeak oso zorrotzak izan. Hortxe testuingurua! Orain, mintza gaitzen.

—Nire ustez, informazio asko ematen du nabigaziora eman genuen pausoa ulertzeko. Bestalde, paisaiak benetan ederrak dira —erantzun zuen ltxasok. Irunen jaioa, erretiroa hartuta zegoen, eta haur-laboretegian ilerako landare-tinduekin esperimintatzea atsegin zuen—. Baina esan beharra daukat ni edozein itsasontzitan zorabiatzen naitzela. Sekulako amorrua ematen dit ahizpa bisitatzeko txalupa hartu behar izateak! Nahiago dut trenez ibili, ibaian baino. Ez naiz ohitzen.

—Niri harrigarria egin zait nabigatzea hain zaila izatea aspaldiko garai hartan —esan zuen Bikendik. Araban jaioa, Unibertsitate Ospitaleko langilea zen—. Pentsa zein gogorrak izango ziren lehen bidaia transatlantikoak egin zituzten pertsona haiek. Horregatik hartu zituzten jainkotzat Amerikako natiboek.

Yunuenek eta Alaik, begirada konplize bat elkarrekin gurutzatu, eta, gero, gonbidatzaileari begiratu zioten, erne-erne.

—A! Bai interesgarria. Baina ideia hori azaldu al da dokumentalean? —Laurak taldeari bota zion galdera, ez Bikendiri. Yunuen ohartu zen gonbidatzaileak kontu handiz egin zuela galdera, ideien kalitatea eztabaidatzen baitzen Desikaskuntza bakoitzean, ez pertsonena.

—Ez —erantzun zuen Sedáne. Senegalen jaioa, maite zuen historiaz irakurtzea—. Eta asko eztabaidatzen da horretaz, zeren badirudi mito bat dela. Esate baterako, maiek «atzeritar» izendatu zituzten hasiera-hasieratik espainiarrak.

(*Dzules*: hasieran, «atzeritarrak». Gero, «zapaltzaileak». Hitzen esanahia aldatu egiten da denborarekin), pentsatu zuen Yunuenek bere artean.

—Hain justu, niri atal hori gustatu zait gutxien —esan zuen Sorayak. Ekuadorko ikaslea, jakin-minezko begirada—. Kolonen bidaiak zerbait guaia balira bezala aipatzen dituzte. Begira, hemen, pasarte honetan —esan zuen, hatza zaletaren gainean irristatu eta eguneko Desikaskuntza hasiko zuen pasartea aurkitu eta erreproduzitzeko asmoz.

Pantaila berriz piztu zen, koloreak eta distira ahulduta, kanpoko argiarengatik. Esatariak, garai hartako dokumentaletako ohiko ahots hanpatuz, zera azaldu zuen:

«Desizozteak mundu osora ekarritako aldaketak gorabehera, itsaso honek berak bertatik bertara ikusi zuen nola abiatu ziren gure arbasoak, mugarik gabeko abenturazaleak denak ere, beste jomuga, ondasun, ospe eta loria batzuen xerka». Pantaila mututu egin zen berriz.

—«Beste jomuga batzuen xerka» —errepikatu zuen Sorayak, esatariaren ahotsa antzeratuz—. Paradoxikoa da hori esatea. Oker ez banago, 2037a izan zen txalupetan migratzaile gehien hil zen urtea. Ez daukat gogoan kopuru zehatza, baina uste dut sei mila lagun inguru hil zirela hamabi hilabetean.

Laurak Bikendiri begiratu zion, kritikaren aurrean nola erreakzionatuko ote zuen kalkulatz.

—Baina ez dut ulertzen zer zerikusi duten batak bestearekin —esan zuen Bikendik—. Herrialde berri bat sortzeko asmoz itsasora jotzeak badu meritua, ezta?

—Bat nator ideia horrekin: migratzeko desira ez da soilik aktibatzen egoera txarretan —esan zuen Tefanek. Errumaniarra zen, alarguna eta zinemazale amorratua.

—Alegia, paradoxikoa da garai hartako dokumental batek esatea miresgarria dela beste jomuga batzuen bila abiatzea eta garai berean migratzaile kopuru izugarri bat hiltzea bilaketa horretan —azaldu zuen Sorayak.

—Eta ez zebiltzan ondasun, ospe edo loria bila, baizik eta bizi-rauteko beste jomuga batzuen bila —zehaztu zuen Dalbik. Duela hamazazpi urte etorria zen, Perutik—. Deigarria egin zait hain arinki aipatzea kolonizatzaileek «ondasunak eta ospea» lortzeko zeukaten grina eta ez zehaztea zer ondorio izan zituen horrek jatorrizko herrietan. 2020an, espero izatekoa izan zitekeen hori, baina 2037an ez.

—Baina, norbere lurraldetik atera nahi izateko, beharrezkoa al da gerran egotea edo gosea pasatzea? Nire ustez, halako arazorik ez dugunok ere badugu toki batetik bestera aldatzeko eskubidea. Ez da bidezkoa duela bost mende beste lurralde batzuk inbaditu zituztenen erruak ordaindu behar izatea —aldarrikatu zuen Bikendik.

—Baina «halako arazorik» ez dutenek ere badute toki batetik bestera aldatzeko eskubidea! Pertsona guztiek dute eskubide hori; inork ez die kendu —esan zuen Sorayak, oihu betean.

Eztabaidari adi zegoelarik, Yunuenek pentsatu zuen zaletari esker lasai aski hitz egin zezaketela beren hizkuntzan, jakinda besteek ongi jasoko zutela esandakoa... Jaso bai, baina ez zuten beti ulertzen. Horregatik, gonbidatzaileen zeregina berebizikoa zen.

—Sedán, esan nahi duzu zerbait? —Laura ohartua zen erantzuteko gogoz zegoela baina kostatzen ari zitzaiola inizatiba hartzea. Ederki ezagutzen zuen: bazekien irmo eta garbi baina aldi berean bare hitz egingo zuela.

—Kontua ez da «erruak ordaintzea» —Sedánek eta Sorayak zaletaren arabera Bikendik esandako hitz berak erabili zituzten—, baizik eta erantzukizuna hartzea arbasoek utzitako herentziaren aurrean, izan harro egoteko modukoa, izan kontrakoa. Eta, jakina, ez da ezinbestekoa etsipenak jota egotea migratzeko! Hori onena litzateke. Baina onar dezagun, lehenik eta behin, pobrea bazara miresgarria izango dela baldintza hobeto bila abiatzea, betiere beltzarana ez bazara.

Bikendi konturatu zen gehixeago entzun behar zuela. Solasaldiak aurrera egin zuen, eta, handik tarte batera, zintzotasunez hitz egin zion taldeari.

—Eskerrik asko, lagunok. Arrastorik ere ez nuen gauza garrantzitsu bat ikusi dut zuei esker.



Yunuenek sumatu zuen formularik errazena erabili zutela Desikaskuntza hartan: iritzi desberdinak agertu, entzun, aurka egin, entzun, eskerrak eman. Baziren beste egitura barrokoago batzuk ere, funtzionatzen zutenak.

—Badirudi baditugula zenbait ideia interesgarri komentatzeko. Zer iruditzen zaizue ideiek bereizten eta identifikatzen baditugu? —galdetu zuen Laurak.

Tefanek pantailan proiektatu zuen bere zaletan idazten ari zena: «Beste jomuga batzuen xerka abiatzea miresgarria da, baina baldintza baten arabera: hierarkia sozialean nor zaren». Taldeko gainerako kideak ere batu ziren, eta haien esaldiak pantailan agertzen hasi ziren.

Taldekideen arteko solasaldia gero eta biziagoa izanik, Yunuenek gauza bat galdetu nahi izan zion Alairi, bere jakin-mina asetzearren.

—Nola lortu zenuten jendeak Desikaskuntzan parte hartzea? Esan zenigutenez, hasieran, kostatu zitzaizuen jendea erakartzea.

—Harrapatu gaituzu. Badugu trikimailu bat —aitortu zuen Alaik, irribarrez—. Desikaskuntza beste ekimen baten oinordeko da: Zurrumurruean Aurkako Estrategia, bi mila eta hogeiko urteen aurretik Arabako Foru Aldundiak abiatua. Agerikoa zen emaitzak epe luzera ikusiko zirela, baina, orduan, Aldundiak Immigrazio Plana berritu zuelarik, diskriminazioak epe laburrean amaitzea helburu hartuta kudeatu ziren baliabideak, eta berehala nabaritu ziren hobekuntzak. Lehentasuna eman zitzaien migratzaileenganako beldurra eta arbuioa eragiten zuten desberdintasunen aurkako estrategiei. Horretarako, arrazakeriaren edo aporofobiaren aurkako kanpaina mediatiko erraldoi (eta axaleko)etarako aurrekontuaren zati bat erabili zen, hau da, sariak edo pizgarriak eman zitzaizkien Desikaskuntzan eta harrera-estrategia berrietan parte hartzen zutenei: zorra barkatzea, deskontuak zerbitzu-ordainketetan, elikagaiak, garraioa, tresneria, doakotasunik gabeko botikak...

Yunuen pentsakor geratu zen. Frogatuta dago gizateriak nahiago dituela kontratu bidezko harremanak. Baita hain indibidualistak ez direnek ere. «Eta zer onura ateratzen dut nik horretatik?»: galdera horren erantzun ez oso erakargarria zen ekintza positiboekiko aitzakiarik onena.

—Bai, ulertzen dut. Badirudi babesgabeen bizitzan aurrerapenak egiteak zera dakarrela, bizimodu hobea dutenek pribilegioak galtzea, baina ez da horrela. Parte hartzeak dakarren onura bakarra

«pertsonea hobea izatea» bada, esango nuke ez dela nahikoa —erantzun zuen.

—Dena den: bada gauza bat ederra. Jende gehiena komeni zaiolako sartzan da taldeetan, baina berehala konturatzen dira zer gertatzen den parte hartuz gero, eta jarraitzea erabakitzen dute.

—Alegia, sozializatu egiten direla? Hori esan nahi duzu? Komunitate bateko kide sentitzen direla? Edo mundukoak, akaso?

—Hori da. Suspergarria zaie beren ideiak adierazteko eta trukatzeko esparru bat izatea. Zuek erakutsi zeniguten hori. Itzulpen-aretoa ikusi nahi?

Hondamendi ekologikoak migrazio-bide berriak, herri-desplazamendu berriak eta heriotza-arrazoi berriak ekarri zituen, hala nola deshidratazioa, bero-kolpeak eta uholdeetan itotzea. Horrez gain, atzerazinezko murrizketek kaosa eragin zuten zenbait arlotan: industria, aeronautika, elikagaigintza, meatzaritza eta erregai fosilen salerosketa. Pandemiaren ondoriozko galerak ugariak ziren, eta, klima-larrialdiaren eraginez, munduko biztanleria nabarmen urritu zen. Europako gizarteek, neurri handi batean, migratzaile gazteek ekarritako belaunaldi-erleboari esker eutsi zioten.

Bi mila eta berrogeita hamarreko urteetan, Yunuen eta Alai kide ziren batzordeak sortu ziren. Urteak zeramatzatzen elkarrekin lanean, urrutitik, zeinek bere testuinguruan, migratzaileen bizi-baldintzak hobetzeko estrategiak lantzen. Txipapasko komunitate autonomoak eta Arabako lurralde historikoa aitzindariak izan ziren: 2049an, Lurralde Elkartuak eratu zituzten, hau da, herritarren mobilizazio eraginkorren bitartez eta instituzioetatik at aldaketa iraunkorrak egiteko gaitasunari eutsiz, egiturazko desberdintasunak ezabatu ziren. Pixkanaka, beste komunitate zibil batzuk batu zitzaizkien: Kolonbiako, Hondurasko, Peruko, Magrebeko, Senegalgo eta Errumaniako eskualde autonomoak. Herri-ekimenak indarra hartu zuen, eta, handik denbora batera, martxan jarri zen Lurralde Elkartuen arteko salgaien eta pertsonen zirkulazio librea. Migratzaileak sartzeari saihesteko baliabideak haien etorrerari laguntzeko herritar-erakundeei eman zitzaizkien, migratzaileek beren ekonomia propioa kudeatzen ikasi eta bizi berri bati duintasunez ekin ziezaioten. Paperik lortu ezin bazuten ere, gutxienez etxe komunak izango zituzten, gizarte zibilak zein



erlijio-erakundeek dohaintzan emanak, zeinek Adostasun Adierazpenaren bidez aditzera eman baitzuten etapa berri batean zeudela eta aldarrikatzen zituzten balioen praktika irmo eta esplizituan zetzala beren fedearen egiazko lekukotza.

Proiekzio-aretoaren kanpoaldean, Yunuenek egiaztatu zuen zaleta behar bezala jasotzen ari zela Alairen eta bion elkarrizketa. Horrez gain, bere artxibo pertsonalerako ederrak iruditzen zitzaizkion irudiak ere jaso zituen: hodei zilarkarak, hormetako grafitiaren ahots ugariak, arropa birziklatzeko tailerrean etxe komunekojendearentzat eginiko diseinu eroxkak, zaborra erabiliz eraikitako musika-tresna harrigarriak.

—Zaletaren hizkuntza-biltegia izugarri hobetu da. Lan bikaina ari zarete egiten!

—Sistemetako frikiei eta itzulpen- eta truke-batzorde berdin frikiari esker izan da. Hortxe dauzkazu.

Beste ate lerragarri batetik sartu ziren. Atea irekitzean, gela bat ikusi zuen, ahotsez betea, pertsonaz baino gehiago. Yunuen ezagutu zutelarik, ordura arte eta urte askoan egunero pantailaren bidez ikusia baitzuten soilik, hura agurtzera altxatu ziren, Lurralde Elkartuetako biztanleek elkar agurtzeko erabiltzen zituzten keinuak eginez. Besarkadak luzatu egin zitzaizkien denboran.

—Geruza berri bat probatzen ari gara ahotsa identifikatzeko sistema. Trastetxo hau gai da elkarrizketa berean zazpi pertsonaren ahotsak bereizi eta identifikatzeko. Esaiozu zerbait!

Yunuenek, lotsatu samar, bi esaldi esan zituen maia hizkuntzan, ahots leunez. Batzordekideen zaletak piztu egin ziren, eta Yunuenek esan zuenaren edo sistemak ulertu zuenaren itzulpena agertu zen pantailan. Taldea aho batezko algara batean lehertu zen.

—Arrazoi duzu, Yunuen. Arabako ardo batekin egin behar genizun harrera, agindu bezala —erantzun zuen Oriki. Yunuenekin lankidetzan ziharduen hizkuntzalari-taldeko kidea zen.

—Entzun ere egin daiteke. Asko lagundu zigun Mexikotik gurekin bat egin zuten pertsona itsu eta hipoakusikoentzako programazioa hobetzen —azaldu zuen Alaiki, sistemaren funtzionamendu onaz harro. Audioa ipini zuen. Adimen artifizialeko ahotsak euskaraz, frantsesez eta gaztelaniaz igorri zuen Yunuenek esandakoa.

—Ba al zegoen batzorde honetako inor Desikaskuntzan? Ez naiz ohartu —galdetu zuen Yunuenek.

—Bai, Okewe —esan zuen Orik—. Sistemaren biltegia izugarri aberasten da eztabaidetako ñabardurei esker. Gero, txikikeriak zuzendu edo definizioak osatzen ditugu; izan ere, *che*, doinuren bat galdu edo ñabarduraren bat gaizki interpretatzen badugu, pikutara joan daiteke Desikaskuntzako saio bat.

Itzulpen-batzordean, hizkuntzalaritzaren eta itzulpengintzaren arloko kideez gain, baziren ahozko tradizioaren, inprobisazio komikoaren edo herri-musikaren zaindariak, hala nola bertsoaririk zolienak edo Veracruzko *jaranerorik* txinpartatsuenak. Algoritmoak anitz ikasi zuen azkartasun mentalaz, iragarpen-ereduez eta hizkuntzaren erritmoaz eta musikaltasunaz, eta nabarmen hobetu ziren itzulpen-proposamenen abiadura eta zehaztasuna.

Alai eta Yunuen gustura geratuko ziren traste itzultzailearekin jolasean, baina asko zeukaten ikusteko eta hitz egiteko, gaueko Elkartze Zeremoniaren aurretik.

Yunuenek parte hartzen zuen batzordea askoz lehenago hasia zen lanean, bera nerabea zelarik. Hala, Txiapasko mendietan, irakurle-eta zinema-klub komunitarioak antolatzen zituzten, solas egitearen eta errespetuzko desadostasunaren artean trebatzeko, betiere onura kolektiboaren alde, eta oso baliagarriak izan ziren batik bat jatorrizko komunitate batzuetako batzar edo kontzejuetako elkarrizketa-molde komunalak ezagutzen ez zituztenentzat. Ekimen hari esker, talde baten bitartekari-lanak hasi zituen ospitaleetan eta migrazio-bulegoetan, gatazkak sortzen baitziren interpreterik ez zegoenean. Bazekiten entzutea eta amankomunezko hizkuntzak edo itzulpena baliatzea eraginkorra zela bakerako eta berdintasunerako.

Desikaskuntzako esparruen premisa inplizitu samarra zen: abiapuntu gisa, pertsonak ez dira ez onak, ez txarrak. Areago, pertsonen ongizate komunerako kaltegarriak diren jokabide eta ideiak ikasten dituzte, eta, gizarte parekide bat lortu nahi badugu, jokabide eta ideia horiek desikasi egin behar dira: misoginia, arrazakeria, klasismoa, aporofobia, indibidualismoa. Gonbidatzaileak ezinbestekoak dira jendeak eroso adieraz ditzan bere benetako ikuspuntuak; izan ere, ideiak eztabaidatu behar dira, ez pertsonak. Baina, batez ere,

premisak kontuan hartzen zuen ezen pertsonak, beren ideiak pazientzia eta enpatia handiko esparruetan ezbaian jartzen dituztenean, gai direla beren sinesmenik errotuenak ere aldatzeko.

Esparru horietan, herri hiritartu eta desindigenizatuek antolakuntza kolektiboaren oinarriak ikasi zituzten, eta, horri esker, baita auzo-antolakuntzarako estrategia hobek askatu ere, alde aurreko egituren gainean. Hala, ezinbestean aurre egin beharreko egoerei —lurrikarak, sumendi-erupzioak, uholdeak edo muturreko erradiazioa— osagai berri bat gehitu zieten: gozamina. Hau da, herri gisa antolatzea ez soilik ezbeharren aurrean, baizik eta baita bizitza partekatzea ospatzeko eta hobetzen saiatzeko ere.

Dinamika eta ideia horiek martxan jartzean, eta teknologiaren abiada biziari esker, herri-borondateak eskatu zuen legeztatu zezatela jatorri guztietako migratzaileen egoera. Bestalde, jabe handien etxebizitzak desjabetu zituzten (higiezin-agentziak milaka etxebizitzaren jabe ziren, eta etxebizitza asko, gainera, hutsik zeuden, maizterrei eskatzen zizkieten kostu estratosferikoengatik); beraz, Europako estatu batzuetan, herritarrentzako ongizate- eta eskubide-esparru komun bat eraiki zuten, migratzaileak ere barne hartuta.

Desikaskuntza-ereduak Atlantikoaz beste aldera ere aplikatu zirenean, arreta berezia ezarri zen gonbidatzaile eta itzultzaileek ziurta zezaten epairik eta gaizki-ulerturik ez zela izango solasaldietan. Horretarako, bereziki trebatu ziren zenbait arlotan, hala nola baliabide emozionalen garapenean, historiari buruzko ezagutzetan, hizkuntzetan eta Lurralde Elkartuen arteko kultura-trukeen bitartez ikasitako ohitura eta protokoloetan. Trukeak bost urtetik behin egiten ziren, Elkartzeko Zeremonian: pertsona batzuk bizitokiz aldatzen ziren, izan gonbidatzaile gisa trebatzeko, izan bizitza askerako jomuga berriak bilatzeko plazer hutsez.

Kanpoan, eguraldi ona zegoen. Erradiazioa baxua zen; ateri zegoen, eta ostadar apurtuak, behatoki zuriak argiztatu eta arrosaz edo laranja-zintzatu zituelarik, irrealtasun-kutsu bat eransten zion zeruari: Yunuenek oin bat Txiapasen eta bestea Araban sentitzen zuen. Lur hezearen eta landaretza bizi eta ernearen usaina zerion giroari, izpilikua gailen.





Euri-bideak deseginak ziren azken hamarkadetan, eta mugak ere urtu ziren. Ez zuen axola ibaiak edo ubideak naturalak ez izatea; bazen zerbait funtsezko sentipen bat gogorarazten zuena, hots, zatiketa politikoak guztiz arbitrarioak direla eta mundu irekia honelako zerbait dela: menditik hondartzara isurtzen den ura, hiriak zeharkatzen dituen, urmaelak eratzen dituen lili, pertsona eta ahateen atseginerako. Yunuen hiriko ubide urdin turkesetako *trajinera* eta txalupen funtzionamendua ikasten saiatu zen. Bazekien Mexiko Hiriko batzordeei gustatuko zitzaieela ikustea zer aldaketa ekarri zituen garai bateko aintzira-hirira itzultzeak: Texcocoko aintzirako mamu zaharraren berpizkundea. Zein ederra zen hurbilekoek nahiz urrutikoek hunkitzen uztea.

Denboraren Bankuaren aurretik igarotzean, Alaik haren funtzionamendua azaldu zion.

—Sistema automatizatuta dago. Zaletaren bidez, zerbitzuak eskaintzeko zer prestutasun duen erregistratzen du jendeak (etxeko oinarrizko konponketak, lagun egitea, ozen irakurtzea, maskotak zaintzea, eskolako lanen kluba). Zerbitzuak eskatzeko ere balio du, baina, horretarako, kreditu nahikoa «bermatu» behar da, hau da, beharrezkoa da eskatzen den denbora berbera eman izana. Ekuadorko zaintzaileen eta Marokoko iturginen ekimena izan zen, eta asmoa ordainsari-trukeko zerbitzuen berri ematea zen berez, baina baita denborarik edo indarririk geratzen ez zitzaie lanetan elkarri laguntzea ere, garai bateko lelo eraginkorra gogoan: «Gaur zugatik eta bihar nigatik».

Yunuenek ez zuen sobera atsegin bankuaren metafora, baina onartu zuen sistema bikaina zela. Jaialdian aipatuko zien bere batzordekoei.


Katedral zaharrera iritsi ziren, jaialdi garrantzitsuen egoitza nagusira. Landare-tinduen haur-laborategiak, arropa birziklatzeko tailerrarekin lankidetzan, erle-abaraska baten gisara apaindua zuen eraikinaren barnealdea. Hexagono hori, okre, urrekara eta laranjaxkak zintzilik zeuden sartzen zen ororen buruen gainean, eta jendeak, zalet itzultzaileekin burrunbaka, egiazko erleen tankera hartzen zuen. Mahaia (ikaragarri luzea, ia borobila) atonduta zegoen. Arto-arepen usaina sukalkiarenarekin nahasten zen, molearena maafearenarekin, txipiroiena koko-arrozarenarekin. Baziren Arabako ardoa, mezkala, piscoa, cachaça, eta azkenburukoz beteriko mahai koloretsu bat. Alai eta Soraya hara abiatu ziren lehenik.

Elkartze Zeremonietan, harrera egiten zitzaion itsasotik etorritako batzordeari, eta agurra, berriz, Arabatik aldi baterako edo behin betiko alde egitea erabaki zutenei. Oso ekitaldi hunkigarria zen, beren adiera guztiez biderkatutako hitzez, maitasunez eta musikaz betea. Baita beldurrez betea ere: bidaiari guztiek Atlantikoaz haraindiko nabigazioa baldintza beretan egin arren, ibilbideak monitorizata eta ahalik eta segurtasun-neurri handienekin, eguraldi txarrak arriskuan jartzen zuen haien bizia, patera eta txalupa kalamastretan ibiltzen zirenean bezalaxe, edo basamortua aireztapenik gabeko kuxta metalikoetan pilatuta zeharkatzen zutenean bezalaxe. Gorputz biziak toki batetik bestera eramateko zeregina ardua handikoa zen, ia sakratua. Jaialdiek, aldaketa demografiko izugarri handien ondotik, zerbait desberdina irudikatzen zuten: jendea bizirik, bat eginda eta *resistenciaren* alde (*erresistentzia*, argitu zion zaletak Yunueni) dagoela ospatzeko premia.

Hamar urtetik beherako haurrak ahuntz eroen gisara zebiltzan aulkien inguruan lasterka. Atlantikoaz haraindiko batzordeak dantzan hasi ziren, zabor-orkestra jotzen ari zela aprobetxatuz: eskualdeko saltsa, cumbia, punk eta bachata onena jotzen zuten. Alai ez zen askorik dantzatzen, baina, noizean behin, Ekuadorko zaintzaileen mahaira hurbiltzen zen, janari bila. Mahaia zizka-mizkaz betea zegoen.

Mikrofonotik iragarri zutelarik Bikendi Senegalera joango zela, Sedán Perura, eta Yunuen Araban geratuko zela, txalo, txistu, malko eta txantxek sentiarazi zioten hura zuela bere *otoch*, *etxea*, *casa*.

Mundua den etxea.




ZIRRIBORROAK ETA GERO

Zirriborroak eta gero alternatiba eta utopien etorkizuna irudikatzen duten ipuin laburren bilduma da. «Mundua den etxea» kontakizunean, Gabriela Damián Miravete idazleak pertsonen zirkulazio askea irudikatzen du, mugak gainditzen dituzten tokiko erakunde eta komunitateen ekintza kolektiboaren emaitza gisa.

Lurralde Elkartuak. Arabako erakundeek legeak aldatu eta baliabideak birbanatu dituzte, herritarren kolektiboek munduan aitzindaria den ekimen bat abian jar dezaten, «Lurralde Elkartuak» izenekoa, kontinente desberdinetako lurraldeen artean pertsonen zirkulazio askea ahalbidetzen duena. Kongruentzia Adierazpenaren ondorioz, Elizak eta Bankuek beren jabetzako eraikinak behartsuei lagatzen dizkieten ekintzei lotuta, Lurralde Elkartu hauek pertsonak eta ideiak askatasunez lekuz aldatzen diren munduko mapa berri baterako lehen urratsa dira.

Gabriela Damián Miravetek (Mexiko Hiria, 1979) istorioak eta saiakerak idazten ditu. Zinema eta literaturako irakaslea, kazetaria, eta Cúmulo de Tesla arte eta zientzia kolektiboaren sortzaileetako bat da. Bere istorioak Mexikoko ipuin antologietan argitaratu dira, eta ingelese-italierara, frantsesera eta portugese-itzuli dira, besteak beste, *Una realidad más amplia/A Larger Reality* liburuan, Hugo sarietako finalista den *The Mexican Initiative Scrapbook* egitasmotik abiatuta. James Tiptree Jr. (gaur egun Otherwise) sariaren azken edizioko irabazlea izan zen, «Soñaran en el jardín» ipuinarengatik, feminizidioak gehiago existitzen ez diren etorkizuneko Mexiko bati buruzko istorioa. Laster kaleratuko du *La canción detrás de todas las cosas* (Odo Ediciones), geologiak funtsezko papera duen ipuin-bilduma.

Zirriborroak eta gero **Azala** egonaldi artistikoak garatzeko espazioan sortua da, Lasierra herrian, Araban kokatua dagoen 12 biztanleko herrian hain zuzen, artadi baten mendi-magalean. 2008an abian jarri zenetik, lankidetzeta mota anitz sustatu ditu beste erakunde kultural batzuekin, eta lotura gero eta estuagoa egin nahi du inguru hurbilean egiten diren jarduerekin. Fabula hau sortzeko, Azalak «Futurible» saio bat antolatu zuen, bideokonferentzia bidez, 2022ko urtarrilaren 28an, etorkizun batean zer gerta daitekeen ikusteko.



GURE ESKER ONA

Fabula honen argitalpenarekin —Zirriborroak eta gero proiektuaren barnean hamargarrena— 2017an hasitako lehen etapa ixten da. Biziki eskertzen diegu bide eder honetan zehar gurekin izan diren pertsona guztiei. Afektu asko jaso ditugu eta bilduma berriak beste lurralde batzuetan sortzen ari dira. Gure aldetik, etenaldi bat egingo dugu etorkizun desiragarriagoak marrazten nola jarraitu pentsatzeko, non hobeto bizi eta hil.

Araba #6 honetan, Gabriela Damián Miravete eta Natalia Albenizi eskerrak eman nahi dizkiegu, baita «Futurible» saioan parte hartu zuten guztiei ere: Nerea Azkona, Marga Sánchez, María Ezquerro (Entretanto Entretente-Bitartean Jolasean) eta Lorena Pinos Borja. Eskerrak ere Ongi Etorri Errefuxiatuak elkarteari, inspirazio iturri izan delako fabula honetarako.

ARABAKO BILDUMA #6

2.300 aleko edizioa. Arabako hainbat taberna eta iragate-tokitan lor daiteke. Irakurri ez ezik, narrazioa aditzeko aukera ere badago, zirriborroaketagero.net webgunean.